

ANOETAKO UDALA

Anoetako Udalaren euskara arloko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri erregulatuak. Behin betiko onespina.

Anoetako Udalbatzak 2005eko abenduaren 1ean egindako bilkuran Anoetako Udalaren euskara arloko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri erregulatuak hasierako onespina eman zien.

Espedientea erakusketa publikoan jarritako hogeita hamar eguneko epean inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez, oinarri erregulatuak behin-betiko onartuak geratu dira.

Anoetan, 2006ko urriaren 16an. Fidel Azpiroz Arrillaga. Alkatea.-

1. Xedea edo helburua.

Oinarri hauen xedea Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea da.

2. Onuradunak.

Diru-laguntza honako pertsona edo erakundek eska dezakete:

- 2.1. Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarrek. Ikastaroak trinkoak, arinak, luzeak nahiz motzak izan daitezke.
- 2.2. Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarrek.
- 2.3. Euskarazko komunikabideek, hala nola Galtzaundi aldizkariak, Txolarre irratiak, Tolosaldeko Hitza egunkariak...
- 2.4. Euskara sustatzea helburu duten D ereduaren aldeko irakaskuntzako erakundeek, adibidez Herri Urrats, Kilometroak, Ibilaldia, Araba Euskaraz eta Nafarroa Oinez antolatzen dituzten ikastolek...
- 2.5. Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeek, hala nola Galtzaundi Euskara Taldeak, Kontseiluak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak...

3. Betebeharrak eta baldintzak.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

3.1. Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarren kasuan:

—Eskatzailea Anoetan erroldatuta egotea.

—Ikastaroa amaitzea.

—Ikastaroa ongi aprobetxatzea eta gutxieneko asistentzia izatea (ikus oinarri hauen 8. puntua edo Euskararen Udal-ordenantzen 37. atala).

—Zerga-betebeharrak egunean izatea udalarekin.

3.2. Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarren kasuan:

—Eskatzailea Anoetan erroldatuta egotea.

—Ikastaroa amaitzea.

—Zerga-betebeharrak egunean izatea udalarekin.

3.3. Euskarazko komunikabideen kasuan:

—Dirulaguntza emateko arrazoi den jarduera burutzea.

—Jarduera euskara hutsean izatea.

3.4. D ereduaren aldeko irakaskuntzako erakundeen kasuan:

—Dirulaguntza emateko arrazoi den jarduera burutzea.

3.5. Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeen kasuan:

—Dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak burutzea.

—Jarduerak euskara hutsean izatea.

4. Eskaera eta dokumentazioa.

4.1. Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarren kasuan:

—Udalaren diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta.

—Nortasun agiriaren fotokopia.

—Banketxe edo aurrezki kutzak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

—Banketxe edo aurrezki kutzak emandako agiria, matrikularen diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena.

—Euskaltegiak emandako ziurtagiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko dute: ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua, ikasleak ongi aprobetxatu duen ala ez ikasturtea (hasierako maila, egin zaizkion probak eta amaieran gainditu duen maila) eta ikasleak urtean zehar izan duen asistentzia. Agiri hau ikastaroa amaitzean aurkeztu beharko da.

—Eskatzailearen lan-egoera ziurtatuko duen agiriaren fotokopia. Agiririk ez dagoen kasuetan Euskara batzordeak egingo du balorazioa.

4.2. Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarren kasuan:

—Udalaren diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta.

—Nortasun agiriaren fotokopia.

—Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

—Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, matrikularen diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena.

—UEUk emandako ziurtagiria. Bertan argi eta garbi azaldu beharko dute: ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua eta ikasleak egin duen ikastaroa.

—Eskatzailearen lan-egoera ziurtatuko duen agiriaren fotokopia. Agiririk ez dagoen kasuetan Euskara batzordeak egingo du balorazioa.

4.3. Euskarazko komunikabideen kasuan:

—Udalaren diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta edota komunikabideak berak lekarkeena.

—IFZren fotokopia.

—Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

—Jardueraren nondik norakoen txostena.

—Aurreko urteko jardueraren memoria eta balantze ekonomikoa.

4.4. D ereduaren aldeko irakaskuntzako erakundeen kasuan:

—Udalaren diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta edota komunikabideak berak lekarkeena.

—Kontu korronte baten titulartasunaren adierazpena.

—Jardueraren nondik norakoen txostena.

4.5. Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeen kasuan:

—Udalaren diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta edota komunikabideak berak lekarkeena.

- IFZren fotokopia.
- Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
- Jardueren nondik norakoaren txostena.
- Aurreko urteko jardueraren memoria eta balantze ekonomikoa.

5. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.

- 5.1. Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarren kasuan, barnetegian edo euskaltegian matrikula egitearekin batera.
- 5.2. Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarren kasuan, matrikula egitearekin batera.
- 5.3. Euskarazko komunikabideen kasuan, urteko lehen 5 hilabeteetan.
- 5.4. D ereduaren aldeko irakaskuntzako erakundeen kasuan, urteko lehen 5 hilabeteetan.
- 5.5. Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeen kasuan, urteko lehen 5 hilabeteetan.

6. Onartuko ez direnak.

- Eskaera epez kanpo aurkeztea.
- Oinarri hauen 3. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

7. Ebaluaketa eta onarpena.

Eskaerak Euskara batzordeak aztertuko ditu eta erabakitzeke proposamena egingo du.

8. Diru-laguntzak banatzeko irizpideak.

- 8.1. Barnetegietara edo euskaltegietara euskara ikastera joaten diren herritarren kasuan:
 - Euskalduntze, alfabetatze, EGA, sakontze-ikastaro eta antzerako ikasketak egiten dituztenei matrikularen %75 emango zaie, beti ere eskola orduen %90era joateaz gainera, HABEk ezarritako irizpideen arabera, ikasturteari dagozkion urratsak gainditu izanaren egiaztatzea lortu eta aurkezterakoan, lanean ari baldin badira. Dirulaguntzak jasotzeko ezinbestekoa izango da gorago adierazitako baldintza guztiak bete izatea.
 - Euskalduntze, alfabetatze, EGA, sakontze-ikastaro eta gisako ikasketak egiten dituztenei matrikularen %100 emango zaie, beti ere eskola orduen %90era joateaz gainera, langabetu, ikasle edo etxeko lanetan ari direnak izanik, HABEk ezarritako irizpideen arabera, ikasturteari dagozkion urratsak gainditu izanaren egiaztatzea lortu eta aurkezten baldin badute.

—Barnetegietara doazenen kasuan, matrikularen %50 emango zaie lanean ari direnei eta %75 langabetu, ikasle eta etxeko lanetan ari direnei.

- 8.2. Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen udako euskarazko ikastaroetara joaten diren herritarren kasuan:

—Matrikularen, baina ez egonaldiaren, kostuaren %50 ordainduko zaie ikasle nahiz langabetuei, eta %25 lanean ari direnei.

- 8.3. Euskarazko komunikabideen kasuan:

—Herriarekiko gertutasuna eta hedabidearen zabalkundea hartuko dira kontuan balorazioa egitean: Tolosaldea %60, Gipuzkoa %30, Euskal Herria %10.

—Aldizkakotasuna hartuko da kontuan baloratzerakoan: egunero %40, astero/hamabostero %30, hileroko %20, urtean behin %10.

- 8.4. D ereduaren aldeko irakaskuntzako erakundeen kasuan:

—Lurralde bakoitzak bizi duen euskararen egoeraren arabera banatuko dira diru-laguntzak.

- 8.5. Euskararen normalizazioa helburu duten euskalgintzako erakundeen kasuan:

—Herriarekiko gertutasuna eta jardueren zabalkundea hartuko dira kontuan balorazioa egitean. Lehenik Anoetaren eta ondoren Tolosaldearen normalkuntza prozesuari onura ekarriko dioten ekimenak lagunduko dira diruz.